

126. FITXA. BIZKAIA – Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanleko edo biztanle gutxiagoko udalek hirigintza-plangintza berrikusteko dirulaguntzak

Nori zuzendua: Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanle edo gutxiagoko udalak, betiere haien plangintza orokorra Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea egokitze betekizuna badute.

Sarbide-esteka: Hirigintza-Bizkaia.eus

Erreferentziazko araudia: [Bizkaiko Foru Aldundiaren 35/2025 FORU DEKRETUA](#), apirilaren 10ekoa, [Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanleko edo biztanle gutxiagoko udalek hirigintza-plangintza berrikusteko dirulaguntzen oinarri arautzaileak onesten dituen](#); [Bizkaiko Foru Aldundiaren 2025eko apirilaren 30eko Erabakia](#), [Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanle edo gutxiagoko udalek 2025eko ekitaldirako hirigintza-plangintza berrikusteko dirulaguntzen deialdia onartzeko](#)

Eremuak: Lurralde Garapena

Zenbatekoa: 1.200.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/10/15

Laburpena

Dirulaguntzen xedea da 7.000 biztanle edo biztanle gutxiago dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalen hirigintza-plangintzaren jardura orokorra sustatzea, hirigintza-plangintza berrikusteko tresnak —zerbitzuen administrazio-kontratu bidez egiten direnak— egitearen ondoriozko kostuak finantzatuta, betiere jardura horren helburua udalerrien plangintza orokorra Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea egokitzea bada

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

Dirulaguntza jaso dezaketen hirigintza-tresnak hauek dira:

- Plangintza orokorra erabat edo partez berrikustea Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea egokitze.
- Plangintza orokorrak egiteko beharrezkoak diren lan eta azterlan osagarriak, bereziki ingurumen-

ebaluazio estrategikoari buruzkoak; izan ere, ebaluazio hori es katu beharrekoa da, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren arabera (haren bidez, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen da).

Diruz lagundutako kostuen barruan (BEZa barne), hirigintza-tresna egiteko zerbitzu-kontratuaz gainera, honako kontratu hauek ere sartuko dira: hirigintzako, ingurumeneko eta sektoreko legeriaren arabera osagarriak eta beharrezkoak edo eskatzekoak diren dokumentu eta azterlanak egiteko direnak, hala nola herritarrek parte hartzeko prozesuak, genero-ikuspegia txertatzea, ingurumenaren gaineko ebaluazio estrategikoa, azterlan akustikoak edo zonakatze akustikoa eta zarata-mapa, hala badagokio.

Deialdi honetatik **kanpo** geratzen dira honako jarduera hauek:

- a) Hirigintzari buruzko legerian xedatzen denaren arabera eskatu beharrekoak ez diren lan edo azterlan osagarriak.
- b) Plangintza-tresnak berrikustea barik aldatzea helburu duten lanak, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea egokitzeko bereziko direnak izan ezik.
- c) Udal Administrazioak bere langileen edo zerbitzuen bidez egindako lanak.